23.- APLIKA DAITEKEEN ARAUDIA

Oinarri hauetan xedatu ez den edozertarako, honako arau hauek aplikatuko dira: Arabako Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko 3/1997 Foru Araua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua –Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartzekoa-; Arabako Aurrekontuen Erregimen Ekonomikoari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; aurrekontuen antolamenduari buruzko indarreko foru araua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazketa) eta aplikagarri diren gainerako arauak.

24.- INDARREAN JARTZEA

ALHAOn argitaratzen diren egunaren hurrengoan jarriko dira indarrean oinarri hauek.

23.- NORMATIVA APLICABLE

En lo no dispuesto en las presentes bases se regulará por la Norma Foral 3/1997, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava, Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, Norma Foral 53/1992 de 18 de diciembre de Régimen Económico Presupuestario del Territorio Histórico de Álava, en la Norma Foral de ordenación presupuestaria que se encuentre vigente, Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero y demás normativa que le sea de aplicación.

24.- ENTRADA EN VIGOR

Estas bases entrarán en vigor al día siguiente de su publicación en el BOTHA.

*Foru Aginduak*

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**1727**

**84/2012 FORU AGINDUA, otsailaren 29koa, Arratzua-Ubarrundiako udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedientea zati batean onartu ez, zati batean bertan behera utzi eta zati batean behin betiko onartzen duena.**

I.- AURREKARIAK

Lehenengoa.- Arratzua-Ubarrundiako Udalak, 2006ko azaroaren 9ko bilkuran, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra prestatzeko lana esleitzea erabaki zuen, 1999ko otsailaren 10ean behin betiko onetsi ziren indarreko Arau Subsidiarioak berrikusteko eta udal plangintza Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen aginduetara egokitzeko. Halaber, 2/2006 Legearen 90.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren erakunde eskudunei artikulu horretan aipatzen diren txostenak eskatzea erabaki zuen. Era berean, udalerriko administrazio batzarrei kontzejuaren jabetzako zerbitzuen antolamendurako kontuan hartu beharreko irizpideei eta Plan Orokorra lantzerakoan kontuan hartu beharreko beste edozein irizpideri buruzko txosten bat eskatu zien.

Bigarrena.- 2008ko ekainaren 12ko bilkuran, Arratzua-Ubarrundiako Udalak Plan Orokorraren Aurrerapena jendaurrean jartzea erabaki zuen, eta horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOren 71 zenbakian, 2008ko ekainaren 23an, El Correo egunkarian, 2008ko ekainaren 15ean, eta Diario de Noticias de Álava egunkarian, 2008ko ekainaren 15ean, eta, horrez gain, udalerriko administrazio batzarrei eta udalerri mugakideetako udalei jakinarazi zitzaien eta ediktu taulan ere iragarkia jarri zen.

Informazio publikoko aldian 41 iradokizun aurkeztu ziren eta idazketa taldeak horiei buruzko txostena egin zuen. Udalak, 2008ko azaroaren 24ko bileran, aurkeztutako iradokizunak onartu eta baztertu egin zituen, aipatutako erabakian jaso den bezala.

Hirugarrena.- 2009ko ekainaren 1eko bilkuran, Arratzua-Ubarrundiako Udalak Plan Orokorraren Aurrerapena behin-behinean onartzea eta jendaurrean jartzea erabaki zuen, eta horretarako, iragarkiak argitaratu ziren ALHAOren 69 zenbakian, 2009ko ekainaren 17an, El Correo egunkarian, 2009ko ekainaren 14an, eta Diario de Noticias de Álava egunkarian, 2009ko ekainaren 14an, eta, horrez gain, udalerriko Administrazio Batzarrei eta sektoreko herri administrazio eskudunei jakinarazi zitzaien eta ediktu taulan ere iragarkia jarri zen.

Gero, 2009ko uztailaren 13ko bileran, Udalak erabakia jendaurrean jarrita egoteko epea 2009ko irailaren 18raino luzatzea erabaki zuen. Guztira 59 alegazio aurkeztu ziren, eta idazketa taldeak horien inguruko txostena egin zuen.

*Órdenes Forales*

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**1727**

**ORDEN FORAL 84/2012, de 29 de febrero, de denegación parcial, suspensión parcial y aprobación definitiva parcial, del expediente de Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Arrazua-Ubarrundia.**

I.- ANTECEDENTES

Primero.- El Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia acordó, en sesión del día 9 de noviembre de 2006, adjudicar el trabajo de elaboración del Plan General de Ordenación Urbana al objeto de revisar las vigentes Normas Subsidiarias que fueron aprobadas definitivamente el 10 de febrero de 1999 y adaptar el planeamiento municipal a las prescripciones de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo. Asimismo acordó, de conformidad con lo dispuesto en el art. 90.1 de la Ley 2/2006, solicitar de los órganos competentes del Gobierno Vasco y Diputación Foral de Álava los informes a los que se hace referencia en dicho artículo. También solicitó de las Juntas Administrativas del municipio informe en relación con los criterios que debían ser tenidos en cuenta para la ordenación de los servicios de titularidad concejil y cualquier otro a considerar en la formulación del Plan General.

Segundo.- En sesión del día 12 de junio de 2008, el Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia acordó someter a exposición pública el documento de Avance del Plan General, hecho que fue practicado mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOTHA nº 71, de 23 de junio de 2008, en los periódicos El Correo, de 15 de junio de 2008 y en el Diario de Noticias de Álava, de 15 de junio de 2008, notificación a las Juntas Administrativas del municipio, a los Ayuntamientos de los municipios limítrofes y anuncio publicado en el tablón de edictos.

Durante el período de información pública fueron presentadas 41 sugerencias que fueron informadas por el equipo redactor, procediendo el Ayuntamiento, en sesión del día 24 de noviembre de 2008, a estimar y desestimar las sugerencias presentadas según consta en el acuerdo citado.

Tercero.- En sesión del día 1 de junio de 2009, el Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia acordó aprobar inicialmente el documento de Plan General de Ordenación Urbana, así como someterlo a información pública, hecho que fue practicado mediante la inserción de los oportunos anuncios en el BOTHA nº 69, de 17 de junio de 2009, en los periódicos El Correo de 14 de junio de 2009 y en el Diario de Noticias de Álava de 14 de junio de 2009, notificación a las Juntas Administrativas del municipio, a las administraciones públicas con competencias sectoriales y anuncio publicado en el tablón de edictos.

Posteriormente, en sesión del día 13 de julio de 2009, el Ayuntamiento acordó prorrogar el plazo de exposición pública del documento hasta el día 18 de septiembre de 2009, habiéndose presentado 59 alegaciones que fueron informadas por el equipo redactor.

Laugarrena.- 2010eko urriaren 4ko bileran, Arratzua-Ubarrundiako Udalak espedientea behin-behinean onartzea erabaki zuen, aurkeztutako alegazioak onartuz edo baztertuz, 2010eko ekainaren 14ko bilkurako erabakian jaso den bezala, eta, halaber, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeari espedientea bidaltzea agindu zen eta Arabako Foru Aldundiari ingurumenaren gaineko eraginaren behin betiko txostena egiteko eskatu zitzaion.

Bosgarrena.- Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak 3/2011 bileran, uztailaren 14an, espedientearen txostena egin zuen, eta horren inguruan jaulkitako ziurtapenean jaso diren baldintzak ezarri zituen (baldintza lotesleak ziren). Horrez gainera, espedientea ez zitzaiola berriro Batzarrari aurkeztu behar adierazi zen. Era berean, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak, Lurzoru eta Hirigintza Zuzendaritzak, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, Uraren Euskal Agentziak (URA) eta Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak egindako txostenak erantsi dira.

Seigarrena.- Plan Orokorraren hirigintza prozeduraren izapideak egin diren aldi berean, uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuan xedatutakoari jarraiki, ingurumenaren gaineko eragina batera ebaluatzeko prozedura ere izapidetu da, eta 2007ko urtarrilaren 23an aldez aurretiko kontsulten txostena, 2008ko urriaren 3an aurretxostena eta 2011ko apirilaren 15ean behin betiko txostena egin ziren.

Zazpigarrena.- Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2011ko abuztuaren 30eko sarrera data duen idazki baten bidez, Arratzua-Ubarrundiako Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedientea bidali zuen behin betiko onar zedin. Dokumentua analizatu ondoren, 2011ko irailaren 2ko idazkiaren bidez, dokumentazio osagarria bidaltzeko eskatu zen, eta Udalak 2011ko irailaren 13an bete zuen.

Zortzigarrena.- 2011ko abenduaren 1ean, Arratzua-Ubarrundiako Udalak behin betiko onarpenerako epearen zenbaketa eteteko eskatu zuen, eta eskaera hori abenduaren 1eko 187/2011 Foru Aginduaren bidez gauzatu zen. Gero, 2012ko urtarrilaren 27an, Udalak epearen etenaldia amaitzea eskatu zuen.

2012ko otsailaren 16an, Arratzua-Ubarrundiako Udalak Uraren Euskal Agentziak (URA) jaulkitako txostena bidali zuen, baita HAPOren inguruko dokumentazio osagarria ere.

Bederatzigarrena.- Halaber, abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/99 zkiko Foru Dekretuan xedatutakoa betez, Arabako Hirigintza Batzordeari otsailaren 21eko 2/2012 Bileran, espediente honen berri eman zitzaion.

II.- OINARRIAK

**Lehenengoa.- Dokumentuaren hedadura eta izaera.**

Arratzua-Ubarrundiako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren espedientea Arratzua-Ubarrundian 1999tik indarrean egon diren Udal Plangintza Arauen Berrikuspena da (arau horiek otsailaren 10eko 37/1999 Foru Aginduaren bidez onartu ziren), baita ordura arte izapidetutako 5 aldaketa puntualena ere.

Prozeduraren ikuspuntutik, hirigintza arloko izapideak nahiz ingurumenaren esparrukoak bat etorri dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 84. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin.

Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak txostena eta ziurtapena jaulki ondoren, Arabako Foru Aldundiari dagokio hartu beharreko erabakia hartzea, aipatutako 2/2006 Legearen 91.5 artikuluan xedatutakoari jarraiki.

**Bigarrena.- Deskripzioa eta helburuak.**

Arratzua-Ubarrundiak 57,4 km$^2$ko azalera dauka, gutxi gorabehera, eta 916 biztanle. Arabako Lurralde Historikoaren iparraldean dago, hegoaldean Gasteizekin dago mugan, mendebaldean Zigoitiarekin eta iparraldean Legutiorekin eta Gipuzkoarekin. Egoitza eta jarduera ekonomikoen ezarpen nagusiak iparraldearen eta hegoaldearen arteko komunikazioen inguruan daude, Gasteiztik Gipuzkoara doazenetan.

Cuarto.- En sesión del día 4 de octubre de 2010, el Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia acordó aprobar provisionalmente el expediente con estimación y desestimación de las alegaciones presentadas según consta en el acuerdo de la sesión de 14 de junio de 2010, ordenando asimismo la remisión del expediente a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco y solicitar a la Diputación Foral de Álava la emisión del informe definitivo de impacto ambiental.

Quinto.- La Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco informó el expediente en su sesión 3/2011, de 14 de julio, estableciendo con carácter vinculante las condiciones que se recogen en la certificación emitida al respecto y señalando la no necesidad de que el expediente sea sometido nuevamente a informe de la Comisión. Asimismo se han adjuntado los informes emitidos por la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, la Dirección de Suelo y Urbanismo, la Dirección de Patrimonio Cultural, Agencia Vasca del Agua (URA) y la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental.

Sexto.- Paralelamente a la tramitación del procedimiento urbanístico del Plan General, también se ha tramitado, de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 183/2003, de 22 de julio, el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, habiéndose emitido el informe de consultas previas el 23 de enero de 2007, el informe preliminar el 3 de octubre de 2008 y el informe definitivo el 15 de abril de 2011.

Séptimo.- Mediante escrito, con fecha de entrada en el Registro General de la Diputación Foral de Álava del día 30 de agosto de 2011, el Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia remitió el expediente de Plan General de Ordenación Urbana para su aprobación definitiva. Analizado el documento se solicitó, mediante escrito de fecha 2 de septiembre de 2011, la remisión de documentación complementaria, la cual fue cumplimentada por el Ayuntamiento en fecha 13 de septiembre de 2011.

Octavo.- Con fecha 1 de diciembre de 2011 el Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia solicitó la suspensión del cómputo del plazo para la aprobación definitiva, petición que se materializó mediante Orden Foral 187/2011, de 1 de diciembre. Posteriormente, con fecha 27 de enero de 2012, el Ayuntamiento solicitó el levantamiento de la suspensión del plazo.

En fecha 16 de febrero de 2012, el Ayuntamiento de Arrazua-Ubarrundia remitió informe emitido por la Agencia Vasca del Agua, URA, así como documentación complementaria referente al PGOU.

Noveno.- Asimismo, en cumplimiento de lo preceptuado en el Decreto Foral del Consejo de Diputados núm. 155/99, de 14 de diciembre, este expediente fue informado por la Comisión de Urbanismo de Álava en su Sesión 2/2012, de 21 de febrero.

II.- FUNDAMENTOS

**Primero.- Alcance y naturaleza del documento.**

El presente expediente de Plan General de Ordenación Urbana de Arrazua-Ubarrundia constituye la Revisión de las Normas de Planeamiento Municipal de Arrazua-Ubarrundia vigentes desde el año 1999, aprobadas mediante Orden Foral 37/1999, de 10 de febrero, así como las 5 modificaciones puntuales tramitadas hasta la fecha.

Desde el punto de vista procedimental tanto la tramitación urbanística como la ambiental se han ajustado a lo dispuesto en los artículos 84 y siguientes de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Una vez emitido el informe y la certificación de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, corresponde a la Diputación Foral de Álava adoptar la resolución correspondiente, a tenor de lo dispuesto en el artículo 91.5 de la citada Ley 2/2006.

**Segundo.- Descripción y objetivos.**

El municipio de Arrazua-Ubarrundia cuenta con una superficie de, aproximadamente 57,4 Km$^2$ y una población de 916 habitantes. Se sitúa al Norte del Territorio Histórico de Álava y limita al Sur con el término municipal de Vitoria-Gasteiz, al Oeste con Zigoitia y al norte con Legutio y Gipuzkoa. Los principales asentamientos residenciales y de actividades económicas se localizan en el entorno de las comunicaciones norte-sur, que parten de Vitoria-Gasteiz y van hacia Gipuzkoa.

Udalerriak 10 kontzeju barne hartzen ditu: Arroiabe, Arzubiaga, Betolatza, Dura, Landa, Luku, Mendibil, Uribarri Ganboa, Ziriao eta Zurbao; baita gune bat ere, Langara Ganboa, alegia.

1999tik (urte hartan onartu zen indarrean dagoen Udal Plangintza) orain arte, bertan ezarritako aurreikuspen gehienak gauzatu dira, bai herri lurzoru finkatuari nahiz finkatugabeari dagokienez, bai udalerriko guneetako lurzoru urbanizagarriari dagokionez.

Arabako Erdialdearen LPPak Arratzua-Ubarrundiako guneak dentsitate baxuko hazkuntza zehaztugabeko gune gisa markatzen ditu (habitat alternatiboak); LPPak 300 eta 600 etxebizitza arteko (bigarren etxebizitzak barne hartuz) eredu osagaia egozten dio. Horrez gain, 1999tik, Arloko Lurralde Planetako asko eta Arabako Erdialdeko LPPa garatu dira. Plan horiek Arratzua-Ubarrundiarentzako erreferentziazko lurralde antolamenduaren esparrua osatzen dute, eta, zehazki, inguru fisikoaren interpretazio berria bermatuko dute, baita landa eremuko erabileren arauketa ere, eta horrek eragina du Zadorrako urtegien EBILei eta Salburuako EBILaren zati txiki batean, eta horiei Aitzkorri-Aratz EBILa eta Arabako Lautadako Irla Hariztia EBILa gehitzen zaizkie, baita Natura 2000 Sareko Natura Intereseko Eremuak, Arzubiagako Hariztia, EAEko Korridore Ekologikoen Sarea eta Paisaia Berezien eta Apartekoen katalogoa ere.

Halaber, lurzoruari eta hirigintzari buruzko legeriarekin lotuta eta ingurumenaren esparruan planen ebaluazioa dela eta egon diren aldaketen ondorioz, ezinbestekoa da Arratzua-Ubarrundiako HAPOa Berrikustea.

Premisa horiekin, Plan Orokorrak udalerriaren barrutirako ezartzen duen lurralde ereduak irizpide eta jarduera jarraibide hauek barne hartzen ditu:

1. Dura, Zurbao eta Uribarri Ganboako ezarpen nagusien berreskurapen soziala, Arabako Erdialdearen LPParen arabera.

2. Arroiabe, Luku eta Mendibileko ezarpen ertainak finkatzea eta behar berrietara egokitzea.

3. Udalerriaren berezko egitura ekonomikoaren balioak sustatzea: nekazaritza, zerbitzuak, egoitza guneak arintzea, baita paisaiak ere, Zadorra ibaiaren urtegiaren inguruetan.

4. Herri ezarpenen morfologia mantentzea, aldez aurretik ezarritako ereduen herri diseinua mantenduz, bai tipologiarekin lotuta, bai trazaduraren egiturari dagokionez, egoitza esparruak dauden guneekin lotuz.

5. Antolamendu xehakatuaren esparruetako eraikuntza ordenantzen arauketa.

6. Ezarpen handiagoen herri trazadurarekin jarraitutasuna mantenduz konektatutako lurzoru urbanizagarriak mugatzea, hura osatzen duten elementu egituratzaileak diseinatuz.

7. Udal babeserako elementuak katalogatzea eta aztarnategi arkeologikoak babestea.

8. Zuzkidura defizitak desagerraraztea, oinarrizko ekipamendu eta azpiegiturei eta zerbitzuenei dagokienez.

9. Egoitza eremuetan erabilera industrial txikiak arautu eta mantentzea, industria jarduera udalerriaren barruan bigarren mailako jardueratzat joz.

10. Jarduera kutsatzaileen kontrola, prebentzioa eta zuzenketa.

11. Parke naturaletan aisialdirako jarduerak erabili eta kontrolatzea, baliabideen ustiapena eta horien balioespena bateratuz.

12. Eraikinak lurzoru urbanizatuetara eta urbanizagarrietara mugatzea, eta landa eremuetan etxebizitza isolatua ahalbidetzea, baina nekazaritza eta abeltzaintza prozesuetara lotutakoa soilik.

13. Zadorra, Santa Engrazia, Barrundia, Arlaban eta Bageta ibaiak babestea, kontserbatzea eta hobetzea, baita erreka guztiak ere.

14. Urtegiaren inguruko erabilerak eta jarduerak arautzea, eta uraren baliabidearen kalitatea pixkanaka berreskuratzea sustatzea, baita ibaiertzetako eta uretako ekosistemak mantentzea ere.

**Hirugarrena.- IEBE errespetatzea.**

Plan Orokorraren izapideak gauzatzen diren aldi berean, eta indarrean dauden legeriaren eta araudiaren arabera, behar bezala izapidetu da

El municipio está formado por 10 concejos: Arroiabe, Arzubiaga, Betolaza, Durana, Landa, Luko, Mendibil, Ullibarri-Gamboa, Ziriano, Zurbano y un núcleo, Nanclares de Gamboa.

Desde el año 1999, fecha de aprobación del Planeamiento Municipal vigente, hasta la actualidad, se han desarrollado la mayor parte de las previsiones establecidas en las mismas, tanto en el suelo urbano consolidado y no consolidado, como en el suelo urbanizable de los núcleos del municipio.

El PTP de Álava Central señala los núcleos de Arrazua-Ubarrundia como de crecimiento difuso de baja densidad (hábitats alternativos); el PTP le reconoce una componente de modelo de entre 300 y 600 viviendas, incluyendo las de segunda residencia. Además de ello, desde el año 1999, se han desarrollado gran parte de los Planes Territoriales Sectoriales y el PTP de Álava Central, Planes que configuran el marco de la ordenación del territorio de referencia para Arrazua-Ubarrundia y que, en concreto, garantizarán la nueva interpretación del Medio físico, así como la regulación de usos en el territorio rural, que afecta a los LIC de los embalses del Zadorra y a una pequeña parte del LIC de Salburua, a los que se añaden los LIC de Aitzkorri-Aratz y el LIC Robledal Isla de la Llanada Alavesa, las Zonas de Interés Naturalístico de la Red Natura 2000, el Robledal de Arzubiaga, la Red de Corredores Ecológicos de la CAPV y el Catálogo de Paisajes Singulares y Sobresalientes.

Asimismo, los cambios en materia de legislación de suelo y urbanismo y en materia medioambiental para la evaluación de planes, hacen necesaria en la actualidad la Revisión del PGOU de Arrazua-Ubarrundia.

Con estas premisas, el Plan General establece un modelo territorial del término municipal que se plantea con los siguientes criterios y pautas de actuación:

1. Recuperación social de los asentamientos mayores de Durana, Zurbano y Ullibarri-Gamboa, conforme al PTP de Álava Central.

2. Consolidación de los asentamientos medios de Arroiabe, Luko y Mendibil, adecuándolos a las nuevas necesidades.

3. Potenciar los valores intrínsecos de la estructura económica del municipio: agricultura, servicios, residencial de descongestión, así como los paisajísticos del entorno próximo al embalse del río Zadorra.

4. Mantenimiento de la morfología urbana de los asentamientos poblacionales, reconduciendo el diseño urbano a modelos prefijados, tanto formales de tipología como estructurantes de trazado, ligando ámbitos residenciales con los núcleos existentes.

5. Regulación de las ordenanzas de la edificación en los ámbitos de ordenación pormenorizada.

6. Delimitar suelos urbanizables conectados en continuidad con la trama urbana de los asentamientos mayores diseñando los elementos estructurantes que la conforman.

7. Catalogar los elementos de protección municipal, así como proteger los yacimientos arqueológicos.

8. Eliminar los déficits dotacionales, en cuanto a los equipamientos e infraestructuras básicas y de servicios.

9. Regular y mantener los pequeños usos industriales en áreas residenciales, considerando la actividad industrial como secundaria dentro del municipio.

10. Control, prevención y corrección de actividades contaminantes.

11. Utilización y control de las actividades de recreo en los parques naturales, compatibilizando la explotación de los recursos con su puesta en valor.

12. Limitación de las edificaciones a los suelos urbanos y urbanizables, permitiendo la vivienda aislada en el entorno rural, únicamente ligada a los procesos agrícola-ganaderos.

13. Proteger, conservar y mejorar los ríos Zadorra, Santa Engracia, Barrundia, Arlabán y Baguetas, así como todos los arroyos.

14. Regular los usos y actividades en el entorno del embalse, favoreciendo la recuperación progresiva de la calidad del recurso agua y el mantenimiento de los ecosistemas de ribera y acuático.

**Tercero.- Respecto al ECIA.**

Paralelamente a la tramitación del Plan General y, conforme a la legislación y normativa vigentes, se ha tramitado correctamente el corres-

ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioaren prozedura arautzen duen 183/2003 Dekretua betez, hutsune garrantzitsu batzuk dituen arren.

**Laugarrena.- Lurzoruaren sailkapenari buruz.**

A) HAPOak egoitza eskaintzan 585 etxebizitza areagotzea planteatzen du, Durako eta Zurbaoko gune nagusietan (456 eta 129 etxebizitza, hurrenez hurren). Garapen txikiagoko guneei dagokienez, LAAen irizpidea aplikatzen da, hau da, dagoen etxebizitza kopurua baino etxebizitza gutxiago areagotzea ahalbidetzea.

Agiriak Arratzua-Ubarrundiako Plangintzari buruzko Arau Subsidiarioetan dauden hiri lurzoruko area ia guztiak biltzen ditu, hainbat kasutan hiri lurzoruaren mugaketa lerroak birdoituz eta Zurbaon, Duran eta Uribarri Ganboan dagoeneko garatuta dauden sektoreen gauzatzea barne hartuz.

B) Halaber, planoetan eta hirigintzako araudian hiri lurzoru finkatugabearen eta finkatuaren arteko eremuen bereizketa argi eta garbi azaltzen da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen eta lege hori garatzeko Premiazko Neurriei buruzko 105/2008 Dekretuaren babesean. Eremuari dagozkion fitxek bateratu gabeko hiri lurzoruak garatzeko plan berezi bat burutzeko beharra islatzen dute.

C) Lurzoru urbanizagarri aipagarrienak Duran eta Zurbaon daude. Duran, hiru sektore aurreikusten dira, DU.09, DU.10 eta DU.11, hain zuzen, 92, 148 eta 174 etxebizitzarekin, hurrenez hurren, eta ZU.05 eremua 68 etxebizitzarekin Zurbaon.

Dokumentuaren memoriak proposatzen den egoitza garapena justifikatzen du, eta irizpide gisa ezartzen du garapen urriko egoitza tipologiak eta egiturak ezartzea, eraikuntza isolatu lorategidunen tipologien kontsiderazioa minimizatuz, eta garapen horiek gauzatuko diren jatorriko guneen morfologia aldatu gabe. Hori guztia Arabako Lurraldearen egitura berezia ahaztu gabe, eta, zehazki, Eremu Funtzionalarena, eskualdearen nekazaritza lanaren ondorioz lurraldean homogeneoki kokatutako herrixkak baititu Arabak, eta egitura hori aintzatetsi, babestu eta garatu egin behar baita apustu berri honetan.

Jarraian, egoitza kuantifikazioen proposamenak guneka laburbildu dira:

ANTOLAMENDU XEHAKATUKO ESPARRUAK
HIRI LURZORU FINKATUAN

| | DAGOEN ETXEB. KOP. | ETXEB. KOP. ESTIMATUA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| ARROIABE | 48 | 9 | 57 |
| ARZUBIAGA | 9 | 6 | 15 |
| BETOLATZA | 13 | 12 | 25 |
| DURA | 161 | 30 | 191 |
| LANDA | 14 | 2 | 16 |
| LUKU | 26 | 11 | 37 |
| MENDIBIL | 22 | 4 | 26 |
| LANGARA GANBOA | 16 | 2 | 18 |
| URIBARRI GANBOA | 47 | 23 | 70 |
| ZIRIAO | 3 | 5 | 8 |
| ZURBAO | 116 | 37 | 153 |

ANTOLAMENDU XEHAKATUKO ESPARRUAK SEKTOREKA
BANATUTAKO LURZORU URBANIZAGARRIAN

| | ETXEB. KOP. PROPOSA. | GUZTIRA |
|---|---|---|
| ARROIABE | 39 | 39 |
| DURA | 414 | 414 |
| LUKU | 8 | 8 |
| MENDIBIL | 18 | 18 |
| URIBARRI GANBOA | 24 | 24 |
| ZURBAO | 68 | 68 |

pondiente estudio de impacto ambiental, en cumplimiento del Decreto 183/2003 por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, si bien presenta algunas carencias relevantes.

**Cuarto.- Respecto a la clasificación del suelo.**

A) El PGOU plantea un incremento de la oferta residencial de 585 viviendas en los núcleos principales de Durana y Zurbano (456 y 129 viviendas respectivamente). En lo que respecta a los núcleos de menor desarrollo se aplica el criterio de las DOT de posibilitar un incremento de viviendas menor al nº de viviendas existentes.

El documento recoge prácticamente en su totalidad las áreas de suelo urbano existentes en las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Arrazua-Ubarrundia, ajustando en algunos casos las delimitaciones del suelo urbano, e incluyendo la materialización de los sectores ya desarrollados en Zurbano, Durana y Ullibarri-Gamboa.

B) Asimismo, se concreta claramente en los planos y en la normativa urbanística la diferenciación de los ámbitos de suelo urbano no consolidado y los de suelo urbano consolidado, de acuerdo con la Ley 2/2006, de suelo y urbanismo y el Decreto 105/2008 de Medidas Urgentes, en desarrollo de la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo. Las fichas de ámbito reflejan para los ámbitos de suelo urbano no consolidado la necesidad de redacción de un Plan Especial para el desarrollo de éstos.

C) En cuanto a los suelos urbanizables más reseñables, se sitúan en Durana y Zurbano, con la previsión de tres sectores DU.09, DU.10 y DU.11 con 92, 148 y 174 viviendas respectivamente y ZU.05 con 68 viviendas en Zurbano.

La memoria del documento justifica el desarrollo residencial propuesto estableciendo como criterio la adopción de estructuras y tipologías residenciales de bajo desarrollo, minimizando la consideración de tipologías de edificación aislada con jardín, que no distorsionen la morfología del núcleo origen en el que vayan a darse dichos desarrollos. Todo ello sin olvidar la estructura singular que posee el territorio alavés y, en concreto, el Área Funcional, con sus aldeas alavesas homogéneamente dispuestas en el territorio, fruto del funcionamiento agrario de la comarca, estructura que debe ser reconocida, protegida y desarrollada en esta nueva apuesta.

A continuación se resumen las propuestas de cuantificación residencial por núcleos:

ÁMBITOS DE ORDENACIÓN PORMENORIZADA
EN SUELO URBANO CONSOLIDADO

| | Nº VIV EXISTENTES | Nº VIV ESTIMADAS | TOTAL |
|---|---|---|---|
| ARROIABE | 48 | 9 | 57 |
| ARZUBIAGA | 9 | 6 | 15 |
| BETOLAZA | 13 | 12 | 25 |
| DURANA | 161 | 30 | 191 |
| LANDA | 14 | 2 | 16 |
| LUKO | 26 | 11 | 37 |
| MENDIBIL | 22 | 4 | 26 |
| NANCLARES DE GAMBOA | 16 | 2 | 18 |
| ULLIBARRI-GAMBOA | 47 | 23 | 70 |
| ZIRIANO | 3 | 5 | 8 |
| ZURBANO | 116 | 37 | 153 |

ÁMBITOS DE ORDENACIÓN PORMENORIZADA
EN SUELO URBANIZABLE SECTORIZADO

| | Nº VIV PROPUESTAS | TOTAL |
|---|---|---|
| ARROIABE | 39 | 39 |
| DURANA | 414 | 414 |
| LUKO | 8 | 8 |
| MENDIBIL | 18 | 18 |
| ULLIBARRI-GAMBOA | 24 | 24 |
| ZURBANO | 68 | 68 |

ANTOLAMENDU XEHAKATUKO ESPARRUAK
HIRI LURZORU FINKATUGABEAN

| | ETXEB. KOP. PROPOSA. | GUZTIRA |
|---|---|---|
| BETOLATZA | 6 | 6 |
| DURA | 12 | 13 |
| LANDA | 12 | 12 |
| LANGARA GANBOA | 10 | 10 |
| ZURBAO | 24 | 24 |

1. ZURBAO:

Zurbaoko lurzoru urbanizagarriari dagokionez, ZU.05 sektorea antolatu da, egoitzazkoa eta garapen urrikoa da, ekialdean dago eta gunean dagoen hiri lurzoruaren jarraipen gisa dago proiektaturik, 69.738,63 m$^2$ ditu eta 68 etxebizitzakoa da.

Sektore honen sailkapena egokitzat jotzen da, bai herriaren trazaduraren jarraitutasunagatik, bai dauden bideen eta eraikuntzen egitura organikoa mantentzen delako. Gainera, 4.079,86 m$^2$ko hiri parke bat du, baita 2.172,23 m$^2$ko ekipamendu komunitario bat ere. Sailkapen orokorraren artezpideak lotesleak dira eta etorkizuneko plan partzialean garatu beharko dira. Plan hori Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren betearazpenaren lehenengo lau urteetan egin beharko da.

2. DURA:

A) DU.03 esparruak indarrean dauden Arau Subsidiarioetan hiri lurzoru gisa sailkatutako lurzoruak barne hartzen ditu. Geltokiaren Auzoan dauden lursailak dira, eta 10, 100 eta 500 urteko birgertatze aldien menpe daude, neurri txiki batean. Hori dela eta, hiri lurzoru gisa sailkatzea ahalbidetuko den arren, edozein jarduera gauzatzeko, ezinbestekoa izango da Azterketa Hidrauliko Xehe bat egitea eta bertan benetako arriskua zehaztea eta hartu beharreko segurtasun neurriak definitzea.

B) Duran 30 etxebizitza aurreikusten dira hiri lurzoru finkatuan, 12 etxebizitza hiri lurzoru finkatugabean eta hiru sektore urbanizagarri. DU.09 eremuak 92 etxebizitza barne hartzen ditu, DU.10 eremuak 148 eta DU.11 eremuak 174. Hiru sektore horiek jarraitutasuna ematen diote Durako guneari, eta beren garapena hegoaldean eta ekialdean justifikatzen da, Zadorrako ibaiaren bazterraren eta A-3002 errepidearen artean dauden uholde arriskupeko lurzoruen kokapena dela eta.

Hiru eremuak mugakideak dira eta zonakatze orokorretik bide sare periferiko baten bidez daude egituratuta (bide sare horrek hegoaldean errepidearekin konektatzen du), eta espazio libreen sistema orokor bezala sailkatutako parke lineal bat dago. Bi sistema orokorrek hiru esparruak lotzen dituzte eta unitate funtzional bat osatzen dute, egituraren antolamenduari dagokionez. Ondorioz, hiru sektore horiek elkarren menpe daude beren garapenerako, sailkapen orokorraren eta sistema orokorrekiko konexioaren ikuspuntutik.

DU.09 esparrua garapen urriko egoitza esparru bat da, eta, bertan, bi familiarentzako eta atxikitako etxebizitza tipologiako 92 etxebizitza eraikitzea ahalbidetzen da, guztizko eraikigarritasun urbanistikoa 21.350 m$^2$koa da sestraren gainetik eta 8.540 m$^2$koa sestraren azpitik.

DU.10 esparruak bere egitura antolamenduan familia bakarreko etxebizitzaren tipologia eta familia anitzeko bloke gisako etxebizitzarena bateratzen ditu. Guztira 148 etxebizitza dira, eta guztizko eraikigarritasun urbanistikoa 23.940 m$^2$koa da sestraren gainetik eta 10.248 m$^2$koa sestraren azpitik.

Hala ere, DU.11 antolamendu esparru xehakatua (Duraren iparmendebaldean dago) hornidura guneak artikulatzen dituen espazio estrategiko bat bezala planteatzen da, eta jarraitutasuna ematen dio DU.09 eta DU.10 esparruen bide sistema orokorrari. Gainera, garapen txikiko 174 etxebizitza planteatzen dira, familia bakarreko eta anitzeko etxebizitza atxiki tipologiarekin eta 18.637 m$^2$ko ekipamendu komunitario orokorrarekin, 8.590,44 m$^2$ko irakaskuntzako beste ekipamendu komunitario batekin, eta 1.647,14 m$^2$ko gizarte zerbitzuetarako beste ekipamendu komunitario batekin, eta 1.054,26 m$^2$ko ekipamendu komunitario instituzional batekin.

C) Egoitzen kuantifikazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren EHLABk espedientearen aldeko balorazioa egin zuen, eta, zehazki, Duraren aldekoa, egoitza eskaintza lurralde plangintzan aurreikusten zen kopuruaren barruan baitzegoen.

ÁMBITOS DE ORDENACIÓN PORMENORIZADA
EN SUELO URBANO NO CONSOLIDADO

| | Nº VIV PROPUESTAS | TOTAL |
|---|---|---|
| BETOLAZA | 6 | 6 |
| DURANA | 12 | 13 |
| LANDA | 12 | 12 |
| NANCLARES DE GAMBOA | 10 | 10 |
| ZURBANO | 24 | 24 |

1. ZURBANO:

En cuanto al suelo urbanizable de Zurbano se ordena el sector ZU.05, residencial de bajo desarrollo, situado al este y proyectado como continuación del suelo urbano existente en el núcleo, de 69.738,63 m$^2$ y 68 viviendas.

La clasificación de este sector se considera adecuada tanto por la continuidad de la trama urbana, como por el mantenimiento de la estructura orgánica viaria y edificatoria existente, dotado además por un parque urbano de 4.079,86 m$^2$ y un equipamiento comunitario de 2.172,23 m$^2$, directrices vinculantes de la calificación global, que deberá desarrollarse en el futuro plan parcial a realizarse dentro del primer cuatrienio de ejecución del Plan General de Ordenación Urbana.

2. DURANA:

A) El ámbito DU.03 comprende suelos clasificados como suelo urbano en las vigentes Normas Subsidiarias. Son terrenos situados en el Barrio de la Estación y se encuentran ligeramente afectados por las avenidas de 10, 100 y 500 años de periodo de retorno. Por ello, si bien se permitirá su clasificación como suelo urbano cualquier actuación a desarrollar requerirá la elaboración de un Estudio Hidráulico de Detalle que determine la situación de riesgo real y defina las medidas de seguridad.

B) En Durana se prevén 30 viviendas en el suelo urbano consolidado, 12 viviendas en el suelo urbano no consolidado y tres sectores urbanizables que albergan DU.09, 92, DU.10, 148 y DU.11, 174 viviendas respectivamente. Estos tres sectores se encuentran dando continuidad al núcleo de Durana y su desarrollo se justifica en la parte sur y este, dada la situación de suelos inundables entre la margen del río Zadorra y la carretera A-3002.

Los tres ámbitos se encuentran colindantes y se estructuran, desde la zonificación global mediante un vial periférico, que conecta al sur con la carretera existente, así como un parque lineal, calificado como sistema general de espacios libres. Ambos sistemas generales sirven de conexión uniendo los tres ámbitos, constituyendo una unidad funcional desde la ordenación estructural. Por tanto, estos tres sectores dependen unos de otros para su desarrollo, desde el punto de vista de la calificación global y la conexión con los sistemas generales.

El ámbito DU.09 es residencial de bajo desarrollo y en él se permite la construcción de 92 viviendas de tipología de vivienda adosada y bifamiliar, con una edificabilidad urbanística total de 21.350 m$^2$ sobre rasante y 8.540 m$^2$ bajo rasante.

El ámbito DU.10 combina en su ordenación estructural la tipología de vivienda unifamiliar con la de vivienda plurifamiliar en bloque, resultando un total de 148 viviendas, con una edificabilidad sobre rasante de 23.940 m$^2$ y 10.248 m$^2$ bajo rasante.

Sin embargo, el ámbito de ordenación pormenorizada DU.11, situado al noroeste de Durana se plantea como un espacio estratégico que articula los espacios dotacionales, dando continuidad al sistema general viario de los otros dos ámbitos DU.09 y DU.10. Además se plantean 174 viviendas de bajo desarrollo, con tipología de vivienda unifamiliar adosada y plurifamiliar y un equipamiento comunitario genérico de 18.637 m$^2$, otro equipamiento comunitario docente de 8.590,44 m$^2$, un tercer equipamiento comunitario de servicios públicos de 1.647,14 m$^2$, y un cuarto equipamiento comunitario institucional de 1.054,26 m$^2$.

C) En cuanto a la cuantificación residencial, la COPTV del Gobierno Vasco informó el expediente favorablemente, y concretamente en Durana, al encuadrarse la oferta residencial dentro de la cuantificación prevista en el planeamiento territorial.

D) Halaber, eta Durako sektore urbanizagarrietako lurzoruaren sailkapenari dagokionez, Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, 2011ko uztailaren 14an jaulkitako ziurtapenean, modu loteslean adierazi zuen:

"Lurzoruak Uraren Euskal Agentzia honen datuen arabera duten urperagarritasun mailaren arabera erabiltzearen inguruko irizpideetan oinarrituz, azkenean esparru guztietan planteatzen den antolamendua eta, bereziki, LU-01, LU-03, DU-03 eta DU-09 eremuena, egokitu egin beharko da, eta urbanizazioaren mugak 100 urteko birgertatze aldiaren uholdearen irismena markatzen duen marrarekin bat etorri beharko du".

Bada, DU.09 eta LU.03 sektore urbanizagarriak dira eremurik urperagarrienak, 10, 100 eta 500 urteko birgertatze aldiaren lerroari dagokionez, hurrenez hurren.

E) Bestalde, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren behin betiko txostenak, 2011ko apirilaren 15ekoak, lurzoru urperagarrien sailkapen berriaren inguruko alderdi horren kontrako balorazioa egiten zuen, zehazki, DU.09 eta DU.10 sektoreetan.

Zentzu horretan, ingurumenaren gaineko eraginaren hasierako txostenak jada, 2008ko urriaren 3an, IEBEan azterketa hidrauliko xehe bat eta ingurumenaren gainekoa barne hartzeko eskatu zuen Durako lurzoru urbanizagarrietako lurzoru urperagarrietarako. Ez zenez horrelako azterketarik egin prozedura izapidetzen zenean, ingurumenaren gaineko eraginaren behin betiko txostenean, 2011ko uztailaren 15ekoak, esparru urperagarrietako eremu urbanizagarri horiek izan dezaketen ingurumen eragina ez dela behar bezala zehaztu ondorioztatzen da, baita, 183/2003 Dekretuaren arabera, eraginen identifikazioan eta balorazioan natura baliabideen galera, hondakinen sorkuntza, kutsaduraren areagotzea eta produktibitate ekologikoaren eta nekazaritzakoaren galera analizatu behar direla ere.

F) Uraren Euskal Agentziak (URA) lurzoruak beren urperagarritasun mailaren arabera erabiltzeko irizpide batzuk landu ditu, eta, bertan, Lurraldearen Antolamenduak uholde lautaden ezaugarri funtzionalak aintzatetsi behar direla eta eremu horietan garapen urbanistiko desegokiak ekidin behar direla adierazten da. Administrazio Publikoak behar bezala bermatu behar du garapen berriak seguruak izango direla eta ez dutela uholdeetan urpean geratzeko arriskurik izango; orobat, uholdeetan urpean geratzen diren ordokiak eta urpean gelditu daitezkeen urertzak berez duten helbururako baliatu behar dira, eraginkorrak izan behar dute, eta, beraz, ondo babestu behar dira leku horietan jarduera ezegokirik egin ez dadin.

1.- 10 eta 100 urte bitarteko birgertatze aldiak dituzten eremu urperatuetan, uholdeak izateko arrisku potentzial handia duten eremuetan, urtero ehuneko 1,0a eta ehuneko 10a arteko gertaera probabilitatea dutenen kasuan, egoitzetarako, merkataritzarako eta industriarako eraikuntza erabilerak ez dira onargarriak, ezta ibilguekiko paraleloki diseinatutako azpiegitura linealak ere, saneamendua eta hornidura izan ezik.

2.- 100 eta 500 urte bitarteko birgertatze aldia eta uholdeak izateko arrisku potentzial txikia duten eremuetan, 0,2 ehunekoa eta 1 ehunekoa arteko urteko probabilitatea dutenetan, hirigintza aprobetxamendu onargarri horien kokapena 500 urteko birgertatze aldirako uholde arriskua ekiditeko moduko kota batean garatu beharko da. Horretarako, ur- eta ingurumen-arloaren xehetasunezko azterketa egin beharko da, eta hor zehatz adierazi eta egiaztatu beharko dira ingurumeneko zuzenketa neurri onargarriak, eta ez dituzte inola ere larriagotuko ingurunearen urperagarritasuna eta urpean gelditzeko aurrez dagoen arriskua.

G) Aurreko guztia dela eta, 10, 100 eta 500 urteko birgertatze aldien etorreretarako urperagarritasun lerroak gainjarri ondoren, 100 urteko lerroak DU.09 antolamendu esparru xehakatua zuzenean ukitzen duela egiaztatu da. Eremu hori HAPOa onartu osteko lehenengo lau urteetan lehentasunez garatu beharreko eremutzat jotzen da.

Egiturazko antolamenduan ez da alderi hori kontuan hartu, egoitza eremu bat baita eta eraikigarritasunaren 8.540 $m^2$ sestrapean erreserbatzen dira. Lehenago azaldu den bezala, esparru horretako sistema orokorren egitura organikoa eta lurraldekoa ezinbestean dago lotuta DU.10 eta DU.11 sektoreekin. Halaber, kontuan hartuz DU.09 eta DU.10 sektoreetako ingurumenaren gaineko eragina ez dela behar

D) Asimismo y con respecto a la clasificación del suelo de los sectores urbanizables de Durana, la Comisión la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, en certificación emitida con fecha 14 de julio de 2011, ha informado con carácter vinculante:

"En base a los criterios de usos de suelo en función de su grado de inundabilidad que maneja esta Agencia Vasca del Agua, la ordenación que finalmente se plantee en todos los ámbitos y, en especial en los LU-01, LU-03, DU-03 y DU-09 tendrá que adecuarse de manera que el límite de la urbanización deberá corresponderse con la línea que señala el alcance de la avenida de período de retorno de 100 años."

Efectivamente los sectores urbanizables DU.09 y LU.03 son ámbitos inundables con respecto a la línea de periodo de retorno de 10, 100 y 500 respectivamente.

E) Por otra parte, el informe definitivo de evaluación conjunta de impacto ambiental, de fecha 15 de abril de 2011, informa desfavorablemente este aspecto de la nueva clasificación de suelos sobre zonas inundables, concretamente en los sectores DU.09 y DU.10.

En este sentido, el informe preliminar de impacto ambiental ya solicitó, con fecha 3 de octubre de 2008, la inclusión en el ECIA de un estudio hidráulico y ambiental detallado para las zonas inundables afectadas en los suelos urbanizables de Durana. Ante la carencia de dicho estudio, durante la tramitación del procedimiento, el informe definitivo de impacto ambiental, de 15 de julio de 2011, concluye que no se ha determinado correctamente el impacto ambiental que puedan suponer estos ámbitos urbanizables en zonas inundables y que, conforme al Decreto 183/2003, en la identificación y valoración de los impactos deben analizarse la pérdida de recursos naturalísticos, la generación de residuos, el incremento de la contaminación y la pérdida de la productividad ecológica y agraria.

F) La Agencia Vasca del Agua URA ha elaborado unos criterios de usos del suelo en función de su grado de inundabilidad, en las que se considera que la Ordenación del Territorio debe reconocer las características funcionales de las llanuras de inundación, evitando en ellas actuaciones inapropiadas de desarrollo urbanístico. La Administración Pública debe garantizar que los nuevos desarrollos sean seguros y no expuestos a inundaciones y que las llanuras de inundación y márgenes inundables sean utilizadas para su propósito natural, que continúan funcionando con eficiencia y que están protegidas de actuaciones inadecuadas:

1.- En las áreas inundadas con avenidas de periodo de retorno comprendido entre 10 y 100 años, áreas con un alto riesgo potencial de inundación, con probabilidad anual de ocurrencia entre el 1,0 por ciento y el 10 por ciento, no son admisibles los usos edificatorios residencial, comercial e industrial, ni las infraestructuras lineales diseñadas de modo tendente al paralelismo con los cauces, con la excepción de las de saneamiento y abastecimiento.

2.- En las áreas comprendidas entre las líneas de avenida de 100 y 500 años de periodo de retorno con bajo riesgo potencial de inundación, con probabilidad anual de ocurrencia entre el 0,2 por ciento y el 1 por ciento, la ubicación de esos aprovechamientos urbanísticos permisibles se deberá desarrollar a una cota tal que quede exenta del riesgo de inundación para el periodo de retorno de 500 años, para lo que se exigirá un estudio hidráulico y ambiental de detalle que defina y justifique medidas correctoras ambientalmente asumibles que no agraven, en ningún caso, la inundabilidad y el riesgo preexistente en el entorno.

G) Por todo lo anterior, habiendo superpuesto las líneas de inundabilidad para las avenidas de 10, 100 y 500 años de periodo de retorno, se comprueba que la línea de los 100 afecta directamente al ámbito de ordenación pormenorizada DU.09, considerado como de desarrollo preferente en los cuatro primeros años desde la aprobación del PGOU.

La ordenación estructural no ha tenido en cuenta este aspecto, dado que se trata de una zona residencial en la cual se reservan 8.540 $m^2$ de edificabilidad bajo rasante. Como se ha explicado anteriormente, la estructura orgánica y territorial de los sistemas generales de este ámbito se encuentra vinculada necesariamente a los sectores DU.10 y DU.11. Asimismo, teniendo en cuenta que el impacto

beste analizatu IEBEan, eta URAren irizpideak, EAEn uholdeak jasan ditzaketen lurzoruen ingurukoak, aintzat hartuz, ezinbestekoa da Durako gunearen egituraren antolamendua aldatzea eta oinarrizko akats horiek guztiak konpontzea.

Azaldutako guztiaz gain, sektoretan banatutako lurzoru urbanizagarriko hiru esparruen arteko komunikazio bide sarearen bazterrean kokatutako espazio libreen sistema orokorra beste eremu batean kokatu behar zen; izan ere, proposatzen dena ez da ez tokirik aproposena, ez irisgarria inguruko eremuetatik erabiltzeko erabilera libre eta publikoko eremu gisa.

DU.11 sektoretan banatutako hirugarren sektore urbanizagarriari dagokionez, bere sailkapena birplanteatu egin beharko da, edo, bestela, bere antolamendua nahiz sistema orokorretarako proposatzen den konexioa birplanteatu beharko da, DU.09 eta DU.10 esparruei buruz aurreko paragrafoetan adierazitakoa kontuan hartuz. Halaber, konexioak mantentzen eta konpontzen badira, zonakatzea aldatu egin beharko da, aurreikusten diren egoitza garapen berriak kontuan hartuz.

Era berean, Herrilan eta Garraio Zuzendaritzaren irizpenak aipamen berezia merezi du. Hamahirugarren funtsean analizatu da, eta sektore urbanizagarrien sarrerako loturaren kontrako balorazioa egin du, baita bide komunikazioen sistema orokorraren kontrakoa ere.

